



2021/2022 denboraldia

17. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO KADETEEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

1.KLUB PARTAIDEAK

- 1 MARIÑO C.D.
- 2 TOURING KE
- 3 INTXAURDI K.E.
- 4 AÑORGA K.K.E
- 5 ZARAUTZ K.E.
- 6 GOIERRI GORRI F.K.
- 7 TOLOSA C.F.
- 8 EIBAR S.A.D.
- 9 ANAITASUNA C.D.

2.LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Ohorezko Kadeteen liga txapelketa 9 taldek osatzen dute multzo bakarrean. Fase bakarra jokatu da: puntuen bidez eta bi itzulietara (16 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

Datozen denboraldietarako 18-20 taldeko multzoa finkatu nahi denez, ez da jaitsierarik egongo.

A.Txapeldunen Fasea

Lehenengo bost sailkatuek jokatu dute Txapeldunen Fasea bi itzulietara (10 jardunaldi).

Maiatzaren 15ean eta 22an kanporaketak jokatu dira bi itzulietara; lehenengoa okerren sailkatu denaren zelaian jokatu da, hau da, 4.-1. eta 3.-2.

B. Gipuzkoako Kopa

Gainontzeko 4 taldeek hiru itzulietara (9 jardunaldi) jokatu dute Gipuzkoako Kopa.

Maiatzaren 15ean eta 22an kanporaketak jokatu dira bi itzulietara; lehenengoa okerren sailkatu denaren zelaian jokatu da, hau da, 4.-1. eta 3.-2.



3.ADINAK

Txapelketa honetan 2005., 2006. eta 2007. urtean jaiotakoek har dezakete parte.

4.LIZENTZIAK

Gehienezko kopurua 25 lizentzia da. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

5.BALOIA

Baloia 5 zenbakiduna izango da.

6.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

7.XEDAPEN OROKORRA

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Azterketa medikuaren ziurtagiria aurkeztea.
- Mutualitatean afiliatuta egotea.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.



8.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina **infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.**

9.DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

10.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General